

Balorezko proposamena

GAMI - Jostailu Enpresa

Gure enpresak hurrek pantailei duten esposizioa murrizteko diseinatutako jolas hezigarriak eskaintzen ditu. Gaur egun, hurrek gero eta denbora gehiago ematen dute gailu elektronikoen aurrean, eta horrek haien garapen kognitiboa kaltetu dezake. Horregatik, pentsamendu positiboa eta pantailarik gabe ikastea sustatzen duten jostailuak sortzen ditugu, hala nola buru hausgarriak, pilotak, kuboak eta blokeak. Gure produktuak material jasangarriekin eginak daude, hala nola zura eta plastiko birziklatua, haurren garapen kognitiboa bultzatzeaz gain, ingurumenaren zaintza ere sustatzen dutenak. Onura kualitatibo eta kuantitatiboak ematen ditugu: ezin da neurtu haur baten jolasaren kalitatea eta garapen kognitiboa, baina pantailarik gabeko aldi luzeak neur ditzakegu, baita ikaskuntzan duen eragina ere. Gure jostailuek aukera hezitzaile eta ekologikoa eskaintzen diete gurasoei haurren aisialdirako, eta gure produktuek umeei arazoak konpontzen eta sormena pantailetatik urrun garatzen lagunduko dietela ziurtatzen dugu.

